

Bezeroen segmentazioa

Eskaintzen dugun zerbitzua Bilbon errenta baxua duten pertsonentzako zuzenduta dago, janari osasuntsua prezio merkeetan erostea ahalbidetuko duena. Gure zerbitzua ere ekologiarekin sentsibilitatea duten bezeroei zuzenduta dago, soberakinei beste aukera bat ematen nahi baitute eta ondorioz ez zaie axolako erositako janaria eskola jantokiko soberakinak edo supermerkatu, edo dendetako iraugitzearen den janaria dela jakiteak.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarteak bildutako datuen arabera, pobrezia-arriskuaren tasa % 9,4koa da Euskadin, eta estatuko batez bestekoa % 19,1koa, hau da, 208.000 pertsona baino gehiago. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Departamentuak egindako ikerketaren arabera, 2020. urtean Bilbon ongizate eza %13,5-ekoa izan zen eta pobrezia-tasa %8,2-ekoa. Bilboko biztanleriaren %21,7-ak zailtasunak ditu egin behar dituen ordainketekin. Gure proiektuaren helburua, pertsona hauei dirua aurrezten laguntzea izango zen, era berean botatzen diren elikagai kopurua murrizten delarik. Hainbat elikagai, argi, gas, hipoteka... prezioak asko igotzearen ondorioz, izugarrizko krisia espero da, eta gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua oso lagungarria izango litzateke adituek gomendatzen dituzten eguneko bost otorduak osasuntsu betetzeko, ordaintzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

Gizonentzako eta emakumeentzako irekita dagoen zerbitzua eskaintzen dugu, aipatutako ezaugarriak dituen Bilboko pertsonen zuzenduta baitago.